

DONOSTIAKO EREMU ENOGASTRONOMIKOKO AISIALDI TURISTIKOAREN SEKTOREAN JASANGARRITASUNA HOBETZEKO NEURRIAK EZARTZEKO LAGUNTZA PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA – NEXTGENERATIONEU

SARRERA

Donostiako Udalak eskaera aurkeztu zuen toki erakundeek Europar Batasuna Suspertzeko Tresnaren baitako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 2. azpineurriko 1. inbertsioaren 14. osagaiaren esparruan egiten dituzten inbertsio jardueren finantzaketan parte hartzeko.

Donostiako Udalak aurkeztutako dirulaguntzaren eskaeran, Turismoko Estatu Idazkaritzak dirulaguntza emateko 2022ko abenduaren 19an eman zuen Ebazpenean (horren bidez argitaratu da Turismo Sektoreko Biltzarraren 2022ko abenduaren 14ko Akordioa, toki erakundeek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko 14. osagarriaren 1. inbertsioaren esparruan egiten dituzten inbertsio jarduerak finantzatzeko kreditua banatzeko irizpideak, baita aipatu kreditua irizpide horiek aplikatu ondoren autonomia erkidegoetan banatzeko modua ere ezartzen dituen), baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bidez, eta Donostiako Udalak Helmugako Turismo Jasangarritasuneko (HTJP) Plana (DONOSTIA, ESPERIENTZIA ENOGASTRONOMIKO JASANGARRI ETA BERRITZAILEA) egikaritzeko sinatu duten Hitzarmenean ere, Turismo Enogastronomikoko 2022ko Plan Nazionalean kokatutako jarduerak aipatu dira.

Trantsizio berde eta jasangarrirako 1. ardatzean eta 1. jardueran (INGURUMENA LEHENGORATZEA & JASANGARRITASUNA HOBETZEA / Ekonomia zirkularra / hondakinak), "Enpresetan jasangarritasuna hobetzeko neurriak ezartzeko dirulaguntzak" jarduketa jaso da.

Aisialdi turistikoaren sektorea sektore estrategikoa da gure hirian, ez bakarrik enpleguan duen pisuagatik eta hirian jarduera ekonomikoa sortzeari egiten dion ekarpenagatik, baita markari egiten dion ekarpenagatik eta hiriaren posizionamenduagatik beragatik ere, eta baita bizikidetzatza eta harreman eredu bati egiten dion ekarpenagatik ere. 2023ko zenbakietan, sektore horrek 8.689 enplegu sortu zituen, hiriko enpleguaren %8,8 eta BPGaren %6. (Dirae) Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a.

Dena den, agertoki gero eta globalizatuago batean sektorearen lehiakortasunari eusteko, baita sektorearen garapen berritzailearen alde apustu egiteko ere, eredu iraunkorrako oinarri hartuta, honako hauek bultzatu nahi dira: airearen kalitatea hobetzea, deskarbonizazioa, atmosferarako emisioak murriztea, teknologia garbiagoak erabiltzea eta energia eraginkortasuna sustatzea; hori guztia, hiriko hainbat eragile publiko eta pribaturekin ados jarrita eta lankidetzan arituz.

Helburu horrekin, Donostiako Udalak, Donostia Sustapenarekin batera, Next Generation 2022-2025 proiektua sortu zuen, hiria bera eta bertako turismo aisialdiko enpresak etorkizunari eta bere balio berriei begira dagoen agertoki disruptiboaren aurrean egokitzea sustatzeko eta gai horretan abangoardia izateko.

Donostiako Udalak ez dauka behar beste langilerik eta baliabide materialik aipatu programa behar bezala garatzeko; hori dela eta, komenigarritzat jo da entitate laguntzaile bat izendatzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Aipatu artikulua 2. apartatuak xedatzen duenez, gehienbat edo erabat Administrazio Publikoen partaidetzapean dauden merkataritza sozietateak hartu ahal izango dira erakunde laguntzailetzat.

Donostia Sustapenak, 2023az geroztik berresten dihardu estrategia berri eta kudeaketa eredu berri baterako trantsizioaren aldeko apustua, Donostiako Berrikuntza Agentziaren zeregina betetzean zentratutako estrategia horren helburua hirian berrikuntza erreferente bihurtzea izanik.

Hori dela eta, pertsonen, enprezen eta proiektuen lagundu nahi die, arreta pertsonalizatua, kalitatea eta foku estrategikoa eskainita eta hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten hainbat eragile publiko eta pribatuekin elkarlanean egiteko apustu garbia eginda. Bilakaera horrek, baita ezarritako helburuak betetzeak ere, berrikuntzaren eta zeharbidez tokiko sare ekonomikoan aplikatutako ekintzailetzaren aldeko apustu estrategikoaren esparruan, ostalaritzaren arloko ildo desberdinetan lan egitea ahalbidetu dute, sektoreari beren erronken arabera babesa emateko.

Horrela, 2023an, 400.000 euro baino gehiagoko dirulaguntzak jaso zituen sektoreak Ekonomia Bultzatzeko Planaren baitan. Aldi berean, sektoreko 140 enpresak baino gehiagok aprobetxatu zituzten beren lehiakortasuna sendotzeko zerbitzuak eta/edo laguntzak; halaber, sektorearekiko jarduerak 20 enpresa proiektu berri baino gehiago eta 220 lanpostu berritik gora sortzea ahalbidetu zuen.

Aurrekoa kontuan hartuta, Donostia Sustapenak baditu beharrezko baliabideak eta esperientzia handia dirulaguntzen, laguntzen eta Europako funtsen kudeaketan; hori eta sozietatearen espezializazio maila kontuan hartuta, entitate egokiena da Erakunde Laguntzailearen eginkizunak betetzeko.

Programa DONOSTIA, ESPERIENTZIA ENOGASTRONOMIKO JASANGARRI ETA BERRITZAILEA izeneko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planeko (HTJP) jardueren baitan dago, eta jarduera horiek Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren markoan gauzatzen den Turismo Enogastronomikoko 2022ko Plan Nazionalean kokatuta daude.

Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikartzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 61.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz (honako hau ezartzen du: "Europako funtsekin finantzatu daitezkeen dirulaguntzen oinarri arautzaileek dirulaguntzen deialdia hartu ahalko dute barnean"), onartu egiten dira bai dirulaguntza hauen oinarriak, baita dirulaguntza hauen 2025ko ekitaldirako deialdia ere.

XEDAPENAK**1. ARTIKULUA. HELBURUA**

1.- Turismo aisialdi sektoreko enogastronomiaren esparruan diharduten eta Donostian dauden enpresetan jasangarritasun neurriak ezarri, trantsizio berde eta jasangarria bultzatzeko eta hiri ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak direla eta, horien oinarri arautzaileak ezartzea eta lehiarik gabeko konkurrentziaren bidez 2025ko ekitaldirako deialdia egitea da araubide honen helburua.

2.- Dirulaguntzat hartuko da funts publikoak kontraprestaziorik gabe zuzenean ematea, Oinarri hauen 9. artikulua arabera diruz lagun daitezkeen inbertsio eta gastuak egiteko.

3.- Oinarri hauen babespean emango diren dirulaguntzak **DONOSTIA, ESPERIENTZIA ENOGASTRONOMIKO JASANGARRI ETA BERRITZAILEA** izeneko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planaren (HTJP) baitan daude, eta jarduera horiek Europar Batasunak (ikus EB 2021/241 Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa) NextGenerationEU funtsen bidez finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren markoan (14. osagaia, 1. inbertsioa, 2. azpineuria) gauzatzen den Turismo Enogastronomikoko 2022ko Plan Nazionalean kokatuta daude.

Hain zuzen ere, Donostiako Udalaren HTJP Enogastronomikoa, proiektu hau barnean hartzen duena, Kontseiluaren Betearazpen Erabakian dagoen 218. Helburuan kokatzen da, helmugako turismo jasangarritasuneko planetarako aurrekontua adjudikatzeari buruzkoan, baita honako hauetan ere: 220. Mugarria, helmugako turismo jasangarritasuneko planak burutzeari buruzkoa; eta 221. Mugarria, helmugako turismo jasangarritasuneko planak burutzeari buruzkoa.

4.- Dirulaguntza hauen azken hartzaile guztiek, bai jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoek (autonomoek), bai pertsona juridikoek, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamenduan (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoan) ezarritako baldintzak eta mugak bete beharko dituzte, hargatik eragotzi gabe gainerako xedapenak, bai Espainiako zuzenbidekoak, bai Europar Batasunekoak, baldin eta aplikatzekoak badira, bereziki, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzearen eta kudeatzearen esparruan onartzen diren horiek. Horiek horrela, *de minimis* laguntzetan azken hartzaile bakoitzari eman ahal izango zaion zenbateko osoa ezingo da izan 300.000 euro baino handiagoa, hiru zerga ekitaldiko aldietako edozeinetan. Ondorio horietarako, araubide horren eraginpean geratu direnek jasotako dirulaguntzak esanbidez aipatzen dituen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, hiru zerga ekitaldiri –aribideko ekitaldiari eta aurreko bi zerga ekitaldiei– dagokien muga kuantitatiboa betetzeari dagokionez, zenbaketarako dirulaguntza jasotzeko unea kontuan hartuta.

Dirulaguntza onartzen duen ebazpenean jakinaraziko zaio onuradunari zenbatekoa den dirulaguntza gordinaren baliokidea, *de minimis* mugaren ondorioetarako.

5.- Dirulaguntzen lerro hau aurreikusi da Donostiako Udalaren eta hainbat Erakunde Instrumentalaren (Kiroletako Udal Patronatua, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa eta Donostia Sustapena SA) Dirulaguntzetarako 2024-2026 Plan Estrategiko Bateratuan, Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko martxoaren 26an onartutakoan, dirulaguntza horri buruzko fitxan (Planean bertan) zehaztutako helburu estrategikoak betetzen laguntzeko; honako helburu hauek dira, hain zuzen:

Helburu estrategikoa: 13. Berrikuntza, ekonomia eta enplegua bultzatzea.

Donostiako turismo aisialdiko enpresen iraunkortasuna hobetzea eta ekonomia zirkularra bultzatzea, trantsizio berde eta jasangarria sustatzeko eta hiri ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko.

Izena: Donostiako aisia-enpresa turistikoei jasangarritasuna hobetzeko enpresetan neurriak ezartzeko laguntzak. 79. Fitxa.

2. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZEN ETA DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN PROGRAMEN HELBURUA

1.- Programaren helburua hau da: Donostian dauden aisia turismo sektoreko enogastronomia esparruko enpresetan jasangarritasun neurriak bultzatu eta ezartzea, **trantsizio berde eta jasangarria sustatzeko eta hiri ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko.**

2.- Dirulaguntzak Donostiako ekonomiaren jasangarritasuna hobetzeko neurriak ezartzera bideratu beharko dira. Jasangarritasunak, dirulaguntza horien testuinguruan, esan nahi du ingurumena zaintzea, garapen ekonomiko arduratsua eta gizarte ongizatea bermatzen dituzten jardunbideak ezarri behar direla; hori guztia, luzaroko oreka lortzen laguntzeko, bide batez turismo aisialdi sektoreko enogastronomia esparruko enpresen hazkundera eta ongizate ekonomikoa sustatuz. Neurri horien ezarpena honako esparru hauetan gauza daiteke:

➤ **Ekonomia zirkularra:**

- Instalazioetan birziklatze eta konpostatze prozesuak erraztu eta hobetzen dituzten sistemak ezartzea edota ekipamendua erostea.
- Behin erabiltzeko plastikoen erabilera murrizteko eta ordezkoko aukera jasangarriak sustatzeko sistemak ezartzea edo ekipamenduak erostea.
- Hondakinak ezabatu beharrean berrerabiltzea eta birziklatzea lehenesten dituzten kudeaketa sistemak eta ekipamenduak ezartzea.
- Instalazioetan birziklatze eta konpostatze prozesuak erraztu eta hobetzen dituzten sistemak ezartzea edota ekipamendua erostea.
- Sortzen diren elikagai hondakinak eta alferrik galtzen diren elikagaien kopurua murrizteko sistemak ezartzea edo ekipamenduak erostea.

3.- Deialdi honetan ez dira onartuko energia eraginkortasuna hobetzeko neurriak, adibidez, argiak, klima ekipamenduak, makineria eta abarrak kentzea eta horien ordean eraginkorrago batzuk jartzea edota energia berriztagarriak instalatzea.

4.- Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen **gehieneko zenbatekoa 30.000 euro da**, turismo aisialdiko enogastronomia esparruko arloei lotutako establezimenduetan jasagarritasuna sustatzeko neurriak ezartzeko; **dirulaguntzaren bidez, oro har, diruz lagun daitezkeen gastuen % 70 ordainduko dira eta % 10 gehituko da**, eskatzailea enpresa txiki bat, mikro-ETE bat edo jarduera ekonomikoa duen pertsona fisikoa bada, Oinarri Arautzaile hauen 9.2 artikularen 2. puntuan zehaztutakoaren arabera.

5.- Pertsona onuradunek hainbat eskaera aurkeztu ahal izango dituzte, hain zuzen, eskaera bat, establezimenduan abiarazi nahi duten jasagarritasun proiektu bakoitzeko.

Pertsona onuradun bakoitzak dirulaguntza bakar bat jasoko du. Aurrekontu soberakina badago edo Donostiako Udalak deialdi honetarako diru zuzkidura handitzea erabakitzen badu, bigarren dirulaguntza bat eman ahal izango die dagokion epean eta moduan eskaera aurkeztu duten eta baldintzak betetzen dituzten onuradunei.

3. ARTIKULUA. ERAKUNDE LAGUNTZAILEA

1.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, "Donostia Sustapena" udal sozietatea Erakunde Laguntzaile izaera izango du Oinarri hauetan jasota dauden dirulaguntzen kudeaketari begira, Donostiako Udalaren eta aipatu Erakundearen arteko lankidetzaren hitzarmen egokian ezarriko den moduan.

2.- Ondorio horietarako, Donostia Sustapena, dirulaguntzen izapidegilea denez, "leihatila bakar gisa" arituko da, bai eskaerak egiteko, baita dagokion dokumentazioa jaso eta izapidetzeko ere.

4. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.- Oinarri Arautzaile hauetan ezartzen diren dirulaguntzek, Oinarri hauetan bertan, dagokion deialdian eta dirulaguntza emateko ebazpenean xedatutakoaz gain, ondoko araudi hauek xedatzen dutena bete beharko dute:

- (EB) 2021/241 Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-egikaritza eta mugari eta

helburuak betetzearen jarraipenerako Estatuko Autonomia, Erkidegoko eta Tokiko Entitateek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen duena.

- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes gatazka sortzeko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Araudia onetsi duena.
- Dirulaguntza emateko Ebazpena, 2022ko abenduaren 19koa, Estatuko Turismo Idazkaritzarena, Turismo Sektoreko Biltzarraren 2022ko abenduaren 14ko Akordioa argitaratzen duena (akordio horren bidez, ezarri dira jarduerak finantzatzeko kreditua banatzeko irizpideak, baita aipatu kreditua autonomia erkidegoetan banatzeko modua ere).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak –Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bitartez– eta Donostiako Udalak sinatu duten Hitzarmena, hain zuzen, Euskadiko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planari dagokion Donostia Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana ("Esperientzia Enogastronomiko Jasangarri eta Berritzailea") gauzatzeko.
- Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko otsailaren 8koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez aditzera emandakoa (EHAA, 46. zk., 2022ko martxoaren 4koa).
- Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko martxoaren 29koa, "Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako eta interes-gatazkaren, finantzaketa bikoitzaren eta estatu-laguntzen eta ingurumen-kalte ez-esanguratsuaren arloko betebeharrak betetzeko neurrien plana" onartzen duena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez aditzera emandakoa (EHAA, 74. zk., 2022ko apirilaren 13koa).

2.- Era berean, aplikatu beharko dira: Donostiako Udalaren Iruzuraren aurkako Neurrien Plana (Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko martxoaren 15ean hartutako erabakiaren bidez onartutakoa), baita horren ondoriozko betebeharrak ere, eta Donostia Sustapenaren Iruzuraren aurkako Neurrien Plana, Donostia Sustapena SAREN Administrazio Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onartutakoa.

3.- Halaber, erakunde onuradunek derrigorrez bete beharko dituzte dirulaguntza ematen duen Administrazioak eta gainerako agintari eskudunek, estatukoek zein Europakoek, horretarako ezar ditzakeen arauak, baita –dirulaguntza horien finantzaketaren iturria dela eta– onuradunei dagozkien betebeharrak guztiak ere.

5. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

1.- Oinarri Arautzaile hauen babespean emandako dirulaguntzak Europako Parlamentuaren

eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, ezarri zuen Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatzeko dira. Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntza horiek izapidetzeari eta emateari abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan (Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituenen) aurreikusitakoa aplikatuko zaio, aplikagarriak diren gainerako araudiak alde batera utzi gabe.

2.- Ondorio horietarako, guztira EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EURO (150.000 euro) bideratuko da Programa honetara, turismo aisialdiaren enogastronomia esparruaren arloko enpresen jasangarritasuna hobetzeko neurriak finantzatzeko, Europako Batasuneko Next GenerationEU funtsen bidez erabat finantzatuta.

3.- Donostiako Udalak beretzat gordetzen du dirulaguntza programa honetara bideratuko den zenbatekoa edo finantzatzeko diren eskaeren kopurua aldatzeko eskubidea; kasu horretan, beharrezko jakinarazpenak egin eta iragarkiak jarriko ditu, publikotasuna bermatzeko eta interesatuta egon daitezkeen pertsona guztiak jakinaren gainean geratu direla ziurtatzeko.

4.- Oinarri hauetan eta deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzak emateko dauden funtsek hainbat betebeharrak betetzea eskatuko dute, hain zuzen, klima etiketatzeari dagozkion betebeharrak:

Neurria	Klima etiketatzea	Etiketaren deskribapena	Klimari egindako ekarpena
1- Instalazioetan birziklatze eta konpostatze prozesuak erraztu eta hobetu egingo dituzten programak ezartzea edota ekipamendua erostea.	44	Merkataritzako eta industriako hondakinen kudeaketa: prebenitzeko, minimizatzeko, bereizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko neurriak	% 40
2- Behin erabiltzeko plastikoen erabilera murrizteko eta ordeko aukera jasangarriak sustatzeko sistemak ezartzea edo ekipamenduak erostea.	44	Merkataritzako eta industriako hondakinen kudeaketa: prebenitzeko, minimizatzeko, bereizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko neurriak	% 40
3- Hondakinak ezabatu beharrean berrerabiltzea eta birziklatzea lehenesten dituzten kudeaketa sistemak eta ekipamenduak ezartzea.	44	Merkataritzako eta industriako hondakinen kudeaketa: prebenitzeko, minimizatzeko, bereizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko neurriak	% 40
4- Instalazioetan birziklatze eta konpostatze prozesuak erraztu eta hobetu egingo dituzten programak ezartzea edota ekipamendua erostea.	44	Merkataritzako eta industriako hondakinen kudeaketa: prebenitzeko, minimizatzeko, bereizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko neurriak.	% 40

Neurria	Klima etiketatzea	Etiketaren deskribapena	Klimari egindako ekarpena
5- Sortzen diren elikagai hondakinak eta alferrik galtzen diren elikagaien kopurua murrizteko sistemak ezartzea edo ekipamenduak erostea.	44	Merkataritzako eta industriako hondakinen kudeaketa: prebenitzeko, minimizatzeko, bereizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko neurriak	% 40

Azpineurriek ez dute etiketatze digitalik.

6. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

1.- Dirulaguntzaren onuraduntzat hartuko da laguntza lortu duen ekintza bete behar duen edota laguntza jasotzea legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona fisikoa, baldin eta Oinarri hauetan aipatutako baldintza guztiak betetzen baditu.

2.- Ondoko hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradun: jarduera ekonomikoren bat duten pertsona fisikoak (autonomoak) edo pertsona juridikoak, pribatuak, estatukoak zein atzerrikoak, baita aurrekoen nortasunik ez duten elkarrekin ere, ordenamendu juridikoari jarraikiz eratuta badaude eta Oinarri hauetan finkatutako baldintzak betetzen badituzte. Kanpo geratzen dira ondare sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

3.- Oinarri hauetan, dagozkion laguntzak eskatzeko bete behar diren baldintzak eta haiek egiaztatzeko moduak zehaztuko dira; izan ere, kasu guztietan Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da. Ondorio horietarako, aipatu legea aplikatu behar dela esanbidez adierazten da.

4.- Horrenbestez, dirulaguntza pertsona fisiko edo juridikoei ematea ezinezkoa izango da ondoko kasuetan:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez badituzte.
- Dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak lortzeko aukera ukatzen dien ebazpen irmo baten bidez zehatuta badaude, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean badaude, barnean harturik sexu diskriminazioa egiteagatik zigortu dituztenak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera; era berean, ezingo dira izan laguntza eta dirulaguntza horien onuradun sexuagatiko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penala jaso duten pertsona fisikoak, betiere zehapen horretan ezarritako epean. Era berean, ezingo dute jaso laguntzarik edo dirulaguntzarik berdintasun plan bat indarrean ez daukaten enpresek, baldin eta estatuko araudiaren arabera horretara beharturik badaude, ezta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta ez badute egiaztatu ezarri dituztela neurriak sexu jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu

indarkeriak prebenitzeko eta halako egoerei aurre egiteko, guztia ere estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritakoaren arabera. Dirulaguntza hau eskatu nahi duten enpresek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, zeina 11. artikuluan baitago zehaztuta.

- c) Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorrak dituztenek.
- d) Lehenago eman zaizkien dirulaguntzak edo horien zati bat oraindik itzuli ez badute, dagokion zenbatekoa itzuli dela egiaztatzen ez den bitartean.

5.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoa betez, interesdunek badute eskubidea administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak edo beste administrazioen batek egindako agiriak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak agiri horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak ez badu desadostasuna adierazi; horrelakoetan, agiriak aurkeztu beharko lituzke.

6.- Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzakoa den elkarreragingarritasun aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko du Administrazio Publiko eskudunetan ondoko informazioa, prozedura hau ebazteko eta ordainketak egiteko:

- Donostiako Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko zorrak ordainduta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Foru Ogasunaren zorretan ez egotea egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Ekonomia jardueren gaineko zergaren (EJZ) epigrafeak.
- Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez izatea egiaztatzen duten ziurtagiriak.

7. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

1.- Deialdian parte hartu nahi duten onuradunek bi baldintza hauetako bat bete beharko dute:

- a. Pertsona fisiko edo juridikoa izatea, pribatua, eta Donostiako udal mugartean edukitzea lantokia eta jarduera, gainera bere jarduera eremu enogastronomikoko aisialdi turistikoan garatu behar du.
- b. Eremu enogastronomikoko, aisialdi turistikoaren sektoreko elkarte edo fundazio adierazgarria izatea. Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan edo beste erregistro publiko batzuetan inskribatuta egon beharko dute. Era berean, Herritarren Erakundearen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute —baldintza horren orde, salbuespen gisa, Donostian jardueraren bat egiten duten elkarte eta fundazioen kasuan onartuko da hasieran aipatutako erregistro publikoetan inskribatuta egotea, baldin eta haien presentzia instituzionala interesgarritzat jotzen bada udalerrirako—.

2.- Erakundeak ezingo dira onuradun izan, Sektore Publikoko erakunde publikoen, ondare sozietate eta/edo profesionalen elkargoen menpe badaude edo aipatutako horiek erakunde horietan % 25etik gorako partaidetza badute (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako

ordenamendu juridikora egiten duen Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasota daudenak joko dira sektore publikoko erakundetzat).

3.- Donostia Sustapenak, kudeaketa parte hartzen duen Erakunde Laguntzailea denez, beretzat gordetzen du Oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete direla ziurtatzeko beharrezkotzat hartzen duen informazio eta agiri guztiak eskatzeko eskubidea.

8. ARTIKULUA. JASANGARRITASUNA HOBETZEKO NEURRIAK EZARTZEKO PROIEKTUEN BALDINTZAK

1.- Dirulaguntza hauek turismo aisialdiaren sektoreko enogastronomia esparruari lotuta dauden edota turismo aisiaren sektoreko enogastronomia esparruko enpresa eta entitateentzako proiektuak garatzen dituzten eta establezimendua Donostian daukaten enpresa edo elkarte inbertsio eta gastuak ordaintzen laguntzeko ematen dira, jasangarritasuna hobetzeko neurriak hartze aldera, Oinarri hauen 2. artikuluan deskribatzen diren arloetan.

2.- Diruz lagundutako jasangarritasun neurriek, ezarri nahi direnek, Donostiako udal mugartean kokatuta egon behar dute.

3.- Ezarri nahi den neurriak obra zibil bat edo instalazioren bat eskatzen badu, ondoko baldintzak, aplikatzen diren heinean, bete beharko dira eta jarduera bukatutakoan ziurtagiri edo egiaztagiri egokien bidez egiaztatu beharko dira:

- Eraikuntzan erabilitako osagaiek eta eraikuntza materialek ez dute izango ez amiantorik, ezta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean jasotako baimena behar duten substantzien zerrendan identifikatutako substantzia oso kezagarriarik ere. Erabiltzaileek uki ditzaketen osagaiek eta eraikuntza materialek 0,06 mg formaldehido baino gutxiago isuriko dute materialaren edo osagaiaren m³ bakoitzeko, eta, 1A eta 1B kategorietako konposatu organiko hegazkor kantzerigenoei dagokienez, 0,001 mg baino gutxiago, materialaren edo osagaiaren m³ bakoitzeko; aldeztaturik proba bat egin beharko da, CEN/TS 16516 eta ISO 16000-3 arauak edota proba estandarizatuen beste baldintza eta zehaztapen metodo konparagarriak jarraituz.
- Hondakinen kudeaketa aztertzean, honako hau hartuko da kontuan:
 - Obra eremuan sortutako eraikuntza- eta eraispentxandak ez-arriskutsuen gutxienez % 70 (pisuan) (alde batera utzita 2000/532/EC Erabakiak ezarritako Europako Hondakin Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala) berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, hondakinak beste material batzuk ordezkatzeko erabiliz egiten diren betelanak barne, hondakinen hierarkiari eta eraikuntza- eta eraispentxandakinen kudeaketarako EBko Protokoloari jarraituz.
 - Eraikuntzarekin eta eraispentxandekin zerikusia duten prozesuetan sortzen diren

hondakinen kantitatea murriztu beharko da, eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko EBko Protokoloa betez, eskura dauden teknika onenak baliatuz eta eraispén selektiboa eginez, substantzia arriskutsuak modu seguruan ezabatzea eta eskuztatzea ahalbidetzeko eta, materialak selektiboki ezabatuz, kalitate handiko berrerabilpena eta birziklapena errazteko, eraikuntza- eta eraispén-hondakineterako eskuragarri dagoen sailkapenari jarraikiz.

- Prebentzio neurriak ezarriko dira lurzorua eta ura (ur- eta itsas-baliabideak) kutsatzea saihesteko eta kontrolatzeko, baita obra fasean sortzen den zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murrizteko neurriak ere.
- Ur gailuak instalatuz gero, Europar Batasunean dagoen produktu etiketa bat izango dute.
- Berdegune eta lorategiei lotutako neurrien artean, debekatuta dago espezie exotiko inbaditzaileak erabiltzea eta lehentasuna flora espezie autoktonoei emango zaie.

4.- Balorazio teknikoa.

Proiektuak ebaluatzeko, kontuan izango da enpresaren jasangarritasuna konkretuki eta nabarmen hobetzea frogatzeko ahalmena. Egokitzen joko dira jardunbide jasangarriagoak ezartzen lagun dezaketen neurri eraginkor eta errealistak aurkezten dituzten proposamenak. Proiektuek jasangarritasun arloan inpaktu positiboa izango dutela erakutsi beharko dute, onartuak izateko.

Proiektuak ebaluatzeko, honako irizpide hauek erabiliko dira:

Kalitatearen, garrantziaren, konkretutasunaren arabera, baita proposamen teknikoaren bideragarritasunaren eta deialdiaren helburura egokitzeko mailaren arabera ere. Zehazki: • Garrantzia: proiektua deialdiaren helburuetara behar bezala egokitzea. (25 puntu) • Konkretutasuna: aurkeztutako proposamenaren xehetasunak, helburuak, testuingurua, beharra, adierazleak eta eragina. (25 puntu) Eragina honela neurtuko da: ○ Inbertsio proiektuen kasuan, irizpide honen aplikazioa jasangarritasunean lortutako hobekuntza kuantifikagarrian oinarrituko da. ○ Planak, diagnostikoak, azterlanak, formakuntza prestatzea helburu duten eskaeren kasuan, irizpide hau proposamenaren eragin esparruaren (zeharkakotasunaren) arabera baloratuko da, baita anbizio mailaren eta jasangarritasunean dituen ondorioen arabera ere. • Bideragarritasuna: proiektua kudeatzeko eta egikaritzeko plan egoki bat egotea. (10 puntu)	60 puntu
---	------------------------

Aurrekontuaren garapena eta bideragarritasun ekonomikoa: aurrekontu xehatua, gastuaren proportzionaltasuna (emaitzarekiko), gobernantza azpikontratazioen kasuan eta abar.	35 puntu
Proiektuan genero ikuspegia txertatzea: kontuan izango da proiektuan arituko diren langileei berdintasunari buruzko gutxienez 2 orduko prestakuntza emateko konpromisoa.	5 puntu
PROIEKTUAREN PUNTUAZIO OSOA	100 puntu

Eskaera hautatzeko gutxieneko puntuazioa 60 puntu izango da, beraz, baztertu egingo dira eskatzen den gutxienekoa baino puntuazio txikiagoa lortu duten eskaerak.

9. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

9.1 Diruz lagun daitezkeen gastuak.

1.- Gastu diruz lagungarritzat joko dira:

- Negozioaren eta ekonomia zirkularraren jasangarritasuna hobetzeko ekipamendua erostea.
- Negozioaren eta ekonomia zirkularraren jasangarritasuna hobetzeko instalazioak egiteko obra zuzendaritza, ingeniariaritza eta legeztatzeak.
- Proiektuari lotutako txostenak, ziurtapenak eta auditoretzak, kanpoko adituek egindakoak.
- Negozioaren eta ekonomia zirkularraren jasangarritasuna hobetzeko prozesu edo neurriak sustatzeko tresna teknologikoak eta/edo plataformak erostea edo garatzea.
- Diruz laguntzen den proiektuaren marketin eta komunikazioari lotutakoak, aholkularitza gastuak eta beharrezko euskarriei lotutakoak barne, betiere formatu digitalean badaude eta proiektuaren balioa nabarmentzen badute. Mota honetako gastuek ezingo dute proiektuaren kostuaren %25a gainditu.

2.- Diruz laguntzeko moduko gastuen eskuratze kostuak ez du inola ere gaindituko merkatuko balioa.

3.- Oro har, zalantzarik gabe diruz laguntzen den jarduerari lotuta dauden eta Oinarri hauetan ezarritako epean egin diren gastuak onartuko dira diruz laguntzeko moduko gastu gisa.

4.- Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31. artikulua aplikatu beharko zaie diruz lagun daitezkeen gastuei, espresuki hala aginduta.

5.- Ez dira finantzarriak izango honako hauei dagozkien gastuak:

- Administrazioaren baimenak eta lizentziak, abalen eta/edo fidantzen kostua eta isunak.
- Honako hauei lotutako edozein gastu: gestioak, kontratazioak, kontsultak edo administrazio izapideak, baimen edo lizentziak lortzeko beharrezkoak badira ere.
- Gastu errepikakorrek edo egiturazkoak eta, bereziki, Administrazio Publikoetako langileria gastuak, Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoaren Erregelamenduaren 5. artikulua xedatzen baitu Mekanismoko laguntzak ez dituela ordeztuko Estatuko ohiko aurrekontu gastuak, behar bezala justifikatutako kasuetan ez bada.
- Eskatzaileak sinatutako aseguruak.
- Zaintza eta segurtasuna obrak egikaritzean, martxan jartzeko egunera arte.
- Edozein finantza kostu.
- Zigor arloko zehapenei lotutako kostuak, baita prozedura judizialen gastuak ere.
- Sistema eragilean eta ofimatika aplikazioen lizentziak.
- Jarduketak egiteko eta mantentzeko edozein gastu edo Administrazioari dagozkion gastuak.
- Gauzaz egindako ordainketak.
- Enpresan ohiko / beti bezalako jarduerak gauzatzeko helburuz egindako gastuak, hau da, oraingo egoerarekin konparatuta, jasangarritasuna nabarmen hobetzerik ez dakarrenak.
- Talde bereko enpresen artean eskaintzen diren zerbitzuak; hortaz, barne fakturazioa duten prozesuak ez dira onartuko.
- Ohiko kontabilitate, liburu edukizaitza, auditoretza eta zerga aholkularitzari lotutako jarduerak.
- Ohiko material suntsikorren eta bulego materialaren erosketak.
- Ohiko gastuak eta bereziki hornidura gastuak, hala nola argindarra, ura eta komunikazioa (telefonoa eta Internet konexioa).
- Interesak, errekaruak, zergak eta administrazio zehapenak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- Janari tiketak, dietak, kilometrajea, gasolina eta abar.
- Enpresako langileen lansariak eta soldadak.
- Autonomoen kuota ordaintzeko gastuak.

Halaber, ez dira finantzarriak izango Europako Batzordeak DNSH printzipioarekin bat ez etortzeagatik ez-finantzarritzat jotzen dituen jardueren lotutako gastuak, Batzordearen Exekuzio Erabakiaren eranskinak jasotzen duen moduan,¹ hala nola: i) erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, erregai horien geroko erabilera barne (salbuespena izango dira neurri honen esparruko proiektuak, gas naturala erabiliz elektrizitatea eta/edo beroa sortzearekin lotutakoak, baita garraio azpiegitura eta banaketa lotua ere, betiere "kalte nabarmenik ez eragiteko" printzipioaren aplikazioari buruzko Gida teknikoaren III. eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte²); ii) EBren isurketa eskubideen merkataritza araubidearen esparruko jarduerak (RCDE), baldin eta –jarduera horiekin lotuta– eragingo dituzten berotegi efektuko gasen isuriak dagozkion erreferentzia parametroen azpitik egongo ez direla aurreikusten bada; iii) hondakinen zabortegekin, erraustegiekin eta tratamendu

¹https://eur-lex.europa.eu/resource.html?uri=cellar:4f067743-ceb8-11eb-ac72-01aa75ed71a1.0002.02/DOC_2&format=PDF

²<https://www.boe.es/doue/2021/058/Z00001-00030.pdf>

mekaniko-biologikorako instalazioekin lotutako jarduerak; eta iv) hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumenari kalte egin diezaiokeen jarduerak.

Estatuko eta Europar Batasuneko ingurumen legedia betetzen duten jarduerak soilik jasoko dute dirulaguntza.

9.2 Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.- Dirulaguntzaren zenbateko orokorra, gehienez ere, **gastu diruz lagungarrien % 70 izango da eta % 10 gehituko da, eskatzailea artikuluko honen 2. puntuaren deskribatzen den enpresa txikia edo mikro-ETE bat bada**. Edonola ere, aurkeztutako eskaera bakoitzak gehienez ere HOGEITA HAMAR MILA EURO (**30.000 euro**) jaso ahal izango du.

2.- Ondoko baldintzak betetzen dituzten enpresak hartuko ditugu enpresa txikitzat:

a. Pertsona fisikoak edo juridikoak badira, eskaera egiten den unean enpresa txikiaren baldintza betetzen dela egiaztatu beharko da. Enpresa txikitzat hartuko da horretarako baldintzak betetzen dituen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 13. artikuluko horren inguruan arautzen duenari jarraikiz:

- I. Ustiapen ekonomikoa egitea.
- II. Aktiboa edo eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehaztu bezala, HAMAR (10) milioi eurotik gorakoa ez izatea.
- III. Langileen batez besteko kopurua 50etik beherakoa izatea.
- IV. Lehen adierazitako baldintzetako bat betetzen ez duen beste enpresa batek haien gaineko % 25 edo gehiagoko partaidetzarik ez edukitzea —ez zuzenean, ez zeharka—, salbu eta beste enpresa hori arrisku-kapitaleko funts edo sozietateak direnean eta foru-arau honetako IV. kapituluan ezarritako araubide berezia aplikatzen bazaie.

Erakundea sozietate taldekoa denean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluekin bat, aipatutako langile kopuruek taldea osatzen duten erakunde guztiei egingo diete erreferentzia.

3.- Inola ere ez dira diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.

4.- Ordaindutako zenbatekoa inoiz ez da Oinarri hauetan ezarritakoa betez aurkeztu eta justifikatu diren gastuen zenbatekoa baino handiagoa izango.

5.- **Jasangarritasuna hobetzeko neurriak** egikaritzeko epea hauxe izango da: **2023ko irailaren 1etik dirulaguntza justifikatzeko epemugara arte**.

6.- Justifikatutako gastu guztiak dirulaguntza justifikatu aurretik ordaindutakoak izango dira.

7.- Txartelez eta banku transferentziaz egindako ordainketen agiriak eta helbideratze ordainagiriak baino ez dira onartuko. Egiaztagirietan egindako eragiketari buruzko informazio xehea agertuko da (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data eta abar). Ez dira onartuko banku mugimenduen zerrendak, ezta BIZUM bidez egindako ordainketak ere.

8.- Se admitirán únicamente facturas que hagan referencia a la financiación por los fondos europeos Next Generation al comienzo del concepto de la factura, mediante la expresión “Financiado por la Unión Europea – NextGenerationEU”.

10. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

1.- Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batek helburu bererako emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 9. artikuluen arabera, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako inbertsio proiektuek Batasunaren beste programa eta tresna batzuetatik datorren laguntza jaso dezakete, betiere laguntza horrek programa honetako dirulaguntzak finantzatutako kostu bera estaltzen ez badu. Muga hori gainditzen bada, deialdi honetan emandako dirulaguntzatik soberako zenbatekoa kenduko da.

2.- Pertsona onuradunak dirulaguntza ematen duen organoari programa diruz lagungarriak finantzatzeko jasotako laguntza guztien berri eman beharko dio, laguntza horiek Europar Batasunekoak izan zein ez, betiere finantzaketa bikoitza saihesteari buruzko printzipioa errespetatuz. Jakinarazpen horrekin batera, dagokion emakida edo ukapena egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

3.- Oinarri hauetan araututako dirulaguntzek Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamenduan ezarritako *de minimis* arauak beteko dituzte. Aipatutako araudia Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.

4.- Jasotako dirulaguntzaren zenbatekoak, Oinarri hauetan adierazitakoarekin bat, inoiz ez du diruz lagundutako jardueraren kostua gaindituko, ez banaka, ezta beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera ere.

11. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- **Eskaerak aurkezteko epea** Oinarri hauei buruzko iragarkia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Oinarrien laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta baliabide ekonomikoak agortu arte iraungo du, Oinarri hauen 5. artikuluen arabera (kasu horretan, baliabideak agortu izanaren berri Donostia Sustapenaren webgunean emango da); bestela, deialdia itxi arte iraungo du, hots, **2025eko uztailaren 30era arte**.

2.- Eskaerak telematikoki aurkeztuko dira, Donostia Sustapenaren webgunearen bidez (<https://www.fomentosansebastian.eus/eu/>)

Edozein informazio eskatzeko edo galdera egiteko, 943482800 telefonoa edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoa erabil daiteke, gaian "1. zk. jasangarritasun laguntzak" adierazita. Jendearentzako ordutegia Donostia Sustapenaren webgunean adierazitakoa izango da.

3.- Pertsona onuradunek hainbat eskaera aurkeztu ahal izango dituzte, hain zuzen, eskaera bat, establezimenduan abiarazi nahi duten jasangarritasun proiektu bakoitzeko. Diruz lagundu nahi duten jasangarritasun proiektu bakoitzeko eskaera bat egin beharko dute.

Pertsona onuradun bakoitzak dirulaguntza bakar bat jasoko du. Aurrekontu soberakina dagoenean edo Donostiako Udalak deialdi honetarako diru zuzkidura handitzea erabakitzen duenean soilik eman ahal izango die, bigarren dirulaguntza bat dagokion epean eta moduan eskaera aurkeztu duten eta baldintzak betetzen dituzten onuradunei.

Dirulaguntza eskatzeko interesa duten enpresa edo erakundeek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

Dokumentazio administratiboa

- 1) **Eskaeraren eranskina (1. eranskina).**
 - 2) Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen **NAN** agiriaren kopia.
 - 3) Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen **IFK** agiriaren kopia eta, hala badagokio, ahalordedunaren NAN agiria, ordezkaritza ahalordeekin batera.
 - 4) **Irabazteko asmorik gabeko elkarte eta fundazioek**, aurrekoez gain, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:
 - Dagokion erregistroan izena ematea egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia, hala badagokio.
 - Erakundearen estatutuen edo arautegiaren fotokopia, behar bezala zigilatua eta sinatua.
- Dokumentazio hori entitate eskatzaileak interesgarritzat jotzen duen beste edozein dokumenturekin osatu ahal izango da.
- 5) Dirulaguntza eskatzen duen pertsonaren edo erakundearen **"Banku datuen" eranskina (2. eranskina)**, dagokion banku erakundeak zigilatua, edo bankuko dokumentu baliokidea.
 - 6) Auditoretza egiteko eta funtsen erabilera kontrolatzeko, inplikatura dauden Administrazio Publikoen arteko datu lagatzeak eta tratamenduak onartzeko adierazpena (**3. eranskina**), Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari buruzko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoarekin bat (azken horrek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko kudeaketa sistema konfiguratzeko du).

- 7) Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak eskatzen dituen betebeharrak guztiak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena **(4. eranskina)**.

"Kalte esanguratsurik ez eragitearen" printzipioa («*do no significant harm* – DNSH» printzipioa) errespetatzeko konpromisoari eta klimarekin lotutako etiketatzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, Europako Parlamentuak eta Batzordeak 2021eko otsailaren 12an onetsi zuen 2021/241 (EE) Erregelamenduaren 2. artikuluko 6. apartatuan ezarritako moduan. Azpineurriak ez du etiketatze digitalik, Ministroen Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartu zuen Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean aurreikusitakoarekin bat.

- 8) Pertsona onuradunaren benetako titulartasunaren identifikazioa. Titularra identifikatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan xedatutakoa beteko da, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluko ezartzen duenari jarraikiz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluari lotuta **(5. eranskina)**.

Edonola ere, organo instruktorea programan parte hartzen duten pertsonen benetako titulartasunari buruzko informazioa eskatzeko gaitzen da, betiere Zerga Administrazioako Estatu Agentziak informazio hori ez badu eta hala adierazi badu MINERVA egiaztapen sistemako bandera beltzaren bidez. Informazioa 5 egun balioduneko epean helarazi beharko zaio organo instruktoreari, informazio eskaera egiten denetik aurrera. Informazioa aipatutako epean aurkeztu ezean, eskatzailea prozeduratik baztertzeko arrazoia izango da.

Ekonomia jarduerak egiten dituzten erakunde onuradunek, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluekin bat, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Enpresaburu, Profesional edo Atxikitzaileen Erroldan edota horren baliokide den Foru Zerga Administrazioaren errolda batean izena emanda daudela egiaztatuko dute; laguntzaren eskaera egin zen egunean benetan egiten zen jardura ekonomikoa agertu behar da egiaztagirian.

- 9) Deialdi honen 4. artikuluko 2. puntuan jasota dauden iruzurraren aurkako planak baldintzatu gabe eta erreparorik gabe onartzen direlako adierazpena **(6. eranskina)**.
- 10) Interes gatazkarik ezaren adierazpena (IGE), Administrazioetik kanpoko langileena **(7. eranskina)**.
- 11) Esanbidezko baimena, Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta estatuko agintari eskudunek bete ditzaten dagozkien eskumenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB) 2018/1046 Erregelamenduaren (Euratom) 129. artikuluan xedatutakoari buruzkoak **(Eskabide formularioa)**.

- 12) Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazpena (**8. eranskina**) eta, kasuak hala eskatzen badu, Berdintasun Plana.
- 13) *De minimis* laguntzen txostena. Web orri honetan eskura daiteke: <https://webpub2.igae.hacienda.gob.es/accesoremoto/frmExecAPP.aspx?code=BDNSCRT&TA=ANO>
- 14) Ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteari (DNSH printzipioari) buruzko erantzukizunpeko adierazpena (**9. eranskina**).
- 15) Finantzaketa bikoitza jasoko ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena (**10. eranskina**).

Dokumentazio teknikoa:

- 16) **Txosten teknikoa.** Turismo aisialdiko esparru enogastronomikoarekin zerikusia duten enpresetan jasangarritasuna hobetzeko neurriak direla eta, abiarazi nahi diren jardueren txosten teknikoa, honako atal hauek dituena:
 1. Jasangarritasun proiektuaren izenburua.
 2. Jasangarritasun proiektuaren eta helburuen deskribapen laburra.
 3. Testuingurua.
 4. Ezarriko diren jasangarritasun neurrien deskribapen xehea, proiektua deialdiaren helburuetara behar bezala egokitzen dela jakitea ahalbidetzen duena. Deskribapenak fase nagusiak aipatu beharko ditu (horrelakorik balego).
 5. Eragina. Ezarritako neurriek zenbateraino hobetuko duten enpresaren jasangarritasuna. Aurreikusitako emaitzak kuantifikatzeko eta neurtzeko modukoak izan beharko dira, ahal bada.

17) Aurrekontu xehatua.

Hornitzailearen edo hornitzaileen aurrekontua.

Aurreko apartatuetan aipatutako dokumentazioari dagokionez, dagozkion eranskinak eskaerarekin batera emango dira. Eranskinak osorik bete beharko dira. Sinadura behar duen eransteako dokumentazioa digitalki sinatu beharko da.

4.- Onuradunak bere gain hartzen du erantzukizun osoa, egindako erantzukizunpeko adierazpenen eta aurkezten dituen beste dokumentu guztien egiazkotasunari dagokionez.

5.- Donostia Sustapenak beharrezkoa den beste informazio eska dezake, oinarri hauek betetzen direla ziurtatzeko.

6.- Dokumentazioa aurkezteko epeak edo Oinarri hauetan aurreikusitako beste edozein baldintza bete ezean, eskaera gaitzetsi dela joko da.

12. ARTIKULUA. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

1.- Agiri guztiak berrikusita ondo beteta ez daudela edo baten bat falta dela ikusten bada, eskatzaileari HAMAR (10) egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak helarazteko eskatuko zaio. Halaber, ohartaraziko zaio hala egin ezean eskaeran atzera egin duela joko dela eta prozedura artxibatuko dela, aldez aurretik 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoari jarraikiz ebazpena emanda.

2.- Zuzenketa egiteko eskatutako agiriak telematikoki aurkeztuko dira. Posta elektroniko bidez bidalitako egiaztagiria ez dira onartuko, organo instruktoreak esanbidezko baimenik ematen ez badu behintzat.

3.- Dirulaguntza eskatzeko orduan eta ordainketak egiterakoan Udal Zerga Bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzaren zorrak dituzten onuradunek jakinarazpena jaso eta hurrengo HAMAR (10) egun balioduneko epean ordainketa horiek egunean dituztela egiaztatu beharko dute.

4.- Organo instruktoreak azalpenak eskatu ahal izango ditu, bidezkotzat jotzen badu.

13. ARTIKULUA. ESKAERA IZAPIDETZEKO ETA EBAZTEKO ESKUMENA DUTEN ORGANOAK

1.- Donostia Sustapena izango da dirulaguntza hauen organo instruktorea, Donostiako Udalaren Erakunde Laguntzailea baita.

Organo instruktoreak ofizioz egingo ditu diruz lagun daitezkeen eskaerak zehaztu, aztertu eta baloratzeko eta administrazio betekizunak egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak.

2.- Europako funtsen bidez finantzatutako dirulaguntzen berezitasuna kontuan hartuz gero, Oinarri Arautzaile hauek lehiarik gabeko konkurrentzia bidezko dirulaguntza gisa izapidetuko dira, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 62. artikuluan ezarritako moduan (dekretu horren bidez, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak ezarri dira); izan ere, aipatu artikulua onartzen du jarduerak beste proposamen batzuekiko balorazio konparatiborik eskatu gabe finantzatzea eta dirulaguntza emateko ebazpenak eskaerak aurkeztu diren hurrenkeran ematea, diruz lagun daitekeen egoera edo jarduera bat dela eta gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontu kreditua agortu arte edota **deialdia 2025eko uztailaren 30ean itxi arte**.

3.- Prozedura bakoitzeko eskaintzak edo eskabideak baloratu aurretik, organo instruktorearen titularrak interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoa egingo du, urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritakoaren arabera. Horretarako, AEATEko MINERVA tresnan bildu eta alderatuko du kontratazio-organoaren kideen informazioa, bai eta prozeduran parte hartzen duten pertsona fisiko eta juridikoen informazioa ere.

Prozedura bakoitzeko eskaintzak edo eskabideak baloratu aurretik, organo instruktorearen titularrak honako informazio hau bildu eta AEATEko MINERVA tresnan sartuko du:

1. CoFFEE-n aldez aurretik dagoen eragiketa-erreferentziaren kodea (CRO).

2. Kontratazio-organoaren kideen eta laguntza-organo kolegiatuko kideen izen-deiturak eta NIF zerrenda.
3. Prozeduran parte hartzen duten pertsona fisikoen izen-deiturak edo NIFa. Pertsona juridikoen kasuan, haien izen soziala eta NIFa sartuko dira. Parte-hartzaileak NIF espainiarra ez badu, MINERVAK ez du informaziorik analisia egiteko, eta, ondorioz, kasu horretarako bandera beltza jasotzekari lotutako eragiketa aplikatuko da.

Datuak gurutatu ondoren, MINERVAK interes-gatazkaren arriskuaren analisiaren emaitza helaraziko dio organo instruktorearen titularrari hurrengo egunean. Analisi horretan bandera gorriak eta/edo beltzak atzeman daitezke edo ez:

- Bandera gorriak atzematen ez badira, prozedurak bere horretan jarraituko du.
- Bandera gorri bat edo gehiago atzematen badira, erabakitzaile kaltetuen egoera argitu beharko da. Egoera hori argitu arte, prozedurarekin ezin izango da jarraitu. Horretarako, urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 5. artikuluan ezarritako prozedura jarraitu beharko da. Agindu horrek interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoa arautzen du PRTR gauzatzen duten prozeduretan.
- Bandera beltz bat edo gehiago atzematen badira, horrek ez du prozeduraren etete automatikoa ekarriko. Kasu horretan, organo instruktoreak parte-hartzaileei beren benetako titulartasunaren informazioa eskatu beharko die. Informazio hori organo instruktoreari eman beharko zaio informazio-eskaera egin eta gehienez bost laneguneko epean. Informazioa ez entregatzeak prozeduratik kanpo uztea ekarriko du.

MINERVAn bandera beltz bat edo gehiago (parte-hartzailearen benetako titulartasunari buruzko informazio falta) atzematen badira, horrek ez du ekarriko prozeduraren etete automatikoa. Kasu horretan, organo instruktoreak parte-hartzaileei beren benetako titulartasunaren informazioa eskatu beharko die. Informazio hori bost laneguneko epean eman beharko da, eta, bestela, parte-hartzailea prozeduratik kanpo utziko da.

4.- Organo eskudunak gehienez ere 6 hilabeteko epean emango du dagokion ebazpena, deialdiaren laburpena GAO-n argitaratzen denetik hasita. Gehieneko epea esanbidezko ebazpenik eman gabe igarotzen bada, pertsona onuradunek eskaera gaitzetsi egin dela jo ahal izango dute.

Dirulaguntza emateko edo ukatzeko erabakia arrazoitutako esanbidezko ebazpenaren bidez hartuko du Tokiko Gobernu Batzordeak, erabakia Ekonomiako eta Bertako Enplegurako zinegotziaren esku uzteko aukera galarazi gabe.

Dirulaguntza ematea edo ukatzea banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

5.- Pertsona onuradun bakoitzak dirulaguntza bakar bat jasoko du. Aurrekontu soberakina badago edo Donostiako Udalak deialdi honetarako diru zuzkidura handitzea

erabakitzen badu, bigarren dirulaguntza bat eman ahal izango die dagokion epean eta moduan eskaera aurkeztu duten eta baldintzak betetzen dituzten onuradunei.

6.- Erreserba-zerrenda bat eratu ahal izango da, pertsona onuradunetako batek diru-laguntzari uko egiten badio, pertsona onuradunek emandako gastu-zenbateko hautagarria baino txikiagoa justifikatu dutelako edo aurrekontu-igoera gertatzen delako, Donostiako Udalak zerrenda horretan dagoen eskatzaileari diru-laguntza ematea onartu ahal izan dezan, beste deialdi baten beharrik gabe.

Erreserba-zerrenda eskaera-hurrenkeraren arabera ordenatuko da. Hala ere, deialdi honetan dagoeneko dirulaguntza jaso duten erakundeek bigarren proiektuei dagozkien eskaerak beste erakunde batzuen lehen eskaeren atzean kokatuko dira.

7.- Bai onuradunak hautatzeko prozedura izapidetzean eta baldintzak betetzea egiaztatzean esku hartzen duten pertsonak, bai ebazpena emateko eskumena duen organoko kideek, interes gatazkarik ezaren adierazpena (IGEa) sinatu beharko dute; adierazpen horiek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes gatazka sortzeko arriskuaren analisi sistematikoari buruzko urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritakoaren arabera egiaztatuko dira.

14. ARTIKULUA. AZPIKONTRATAZIOA

1.- Gastu diruz lagungarriaren zenbatekoa, obra exekuzioaren kasuan, 40.000 eurotik gorakoa denean, edo 15.000 eurotik gorakoa, aholkularitza edo asistentzia teknikoko enpresek egindako ekipamendu ondasun horniketaren edo emandako zerbitzuen kasuan, entitate edo pertsona onuradunak **hiru eskaintza eskatu beharko ditu, enpresa hornitzaile desberdinenak**, justifikazio dokumentazioan jasota geratuko direnak, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehen, gastu diruz lagungarrien ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ondasun hori hornitzeko edo zerbitzua emateko behar adina entitaterik ez dagoenean edota gastua eskaera egin baino lehen egin denean izan ezik.

Onuradunak hirugarrenekin azpikontratatzeko duen jarduera diruz lagundua diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era iritsi ahal izango da.

2.- Pertsona edo erakunde onuradunentzat ezarritako betebeharrak guztiak, halaber, jarduera gauzatzean parte hartzen duten azpikontratistek eskatuko zaizkie.

15. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

1.- Emandako dirulaguntzen justifikazioak aurkezteko epea honako hau izango da:

- **Eskaera egiten den egunean proiektua jada gauzatua** duten onuradunek dirulaguntzaren xede den jarduera gauzatu izana, fakturatzeko eta ordaintzeko **gehienez ere HIRU (3) hilabeteko epean** justifikatu beharko dituzte, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

- Eskaeraren datan proiektua gauzatuta ez daukaten dirulaguntzen onuradunek **2025eko abenduaren 31a baino lehen** justifikatu beharko dute laguntzaren xede den jarduketa gauzatu, fakturatu eta ordaindu izana.

Epeak edo Oinarri hauetan ezarritako betekizun edo baldintzetako edozein bete ezean, eskaera gaitzetsi dela joko da eta dagokion ebazpena emango da.

2.- Organo instruktoreak, ofizioz, beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo ditu dirulaguntza Oinarri Arautzaileetan jasotako xede edo helburuetara erabili dela egiaztatzeko.

3.- Oro har, zalantzarik gabe diruz laguntzen den jarduerari lotuta dauden eta Oinarri hauetan ezarritako epean egin diren gastuak onartuko dira diruz lagun daitezkeen gastu gisa.

4.- Ordaintzen den dirulaguntzak inoiz ez du hura emateko erabakian onartutako zenbatekoa gaindituko.

5.- Dirulaguntza ordainketa bakar batean ordainduko da, ondoko dokumentuak aurkeztu eta gero.

Justifikazio dokumentazioa:

1) "Justifikazioa" eranskina.

2) "Amaierako txostena" eranskina:

- Emandako dirulaguntzaren esparruan egindako jarduerak.
- Egindako jarduerak gauzatu direla eta operatibo daudela egiaztatzen duen frogagarria: argazkiak, irudiak, web orriak eta abar.
- Jasangarritasunean izaniko inpaktua positiboa deskribatzea.

3) Hondakinak kudeatzeko ziurtagiriak. Obra zibila behar izanez gero, eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua aplikatuz. Hala, justifikatu beharko da betetzen direla dekretu horren 8. artikuluan adierazitako hondakin kudeaketari buruzko helburuak.

Profesional tituludun batek sinatutako obra proiektua behar duten instalazioetarako:

- Hondakinak kudeatzeko azterlana (proiektuaren obra zibileko fasea).
- Hondakinak kudeatzeko plana (obra zibileko fasea).
- Hondakinak kudeatu izanaren ziurtagiria (obra zibilekoa), kudeatzaile baimendu batek emana.

- Obra zibileko hondakinen balorizazio ziurtagiria (kantitatea eta tratamendua).

4) Diruz lagundutako kostua justifikatzen duen Txosten Ekonomikoa, Excel formatuan. Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hornitzailea eta dokumentua identifikatuta eta zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazita; gainera, erantsiko dira gastuen ordainagiri guztiak, banan-banan, edo bestela, dirulaguntzaren xedea bete dela egiazta dezakeen eta balio juridikoa duen beste edozein dokumentu.

5) Dirulaguntzaren xedeari dagozkion fakturak. Faktura xehatuak izango dira, dirulaguntzaren azken hartzailearen izenean jaulkitakoak, dirulaguntzaren xede diren kontzeptuak identifikatzeko moduan. Pertsona edo erakunde onuradunak Europako NextGenerationEU funtsen bidezko finantzaketa aipatu beharko du fakturaren hasieran, “Europako Batasunaren finantzaketa – NextGenerationEU” adierazita.

6) Egindako ordainketen banku egiaztagiria

Ordainketa aurkeztutako fakturari dagokiola zalantzarik gabe egiaztatzea ahalbidetzen duten ordainagiri guztiak onartuko dira.

Dokumentazioa bide telematikoz aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz bidez bidalitako egiaztagiriak ez dira onartuko. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira, eta elektronikoki sinatu, hala eskatzen bada.

Egindako gastua justifikatzeko egiaztagiri osagarriak eskatu ahal izango dira, baita beste edozein egiaztagiri edo txosten ere, baldin eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan eskatu ahal badira estatuko edo Europako araudiarekin bat.

Dokumentazio guztia aztertu ondoren, egiaztatzen bada benetan jasotako zerbitzuak ez datozela bat —osorik edo partzialki— onartutako jarduketekin edo justifikatu diren gastuak dituzten kontzeptuekin, justifikatutako jarduketei dagokien zati proportzionala baino ez da ordainduko.

16. ARTIKULUA. JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA

1.- Pertsona onuradunek hainbat egiaztapen egitea onartu beharko dute, hain zuzen, dirulaguntza ematen duen Administrazioarenak, hala badagokio, Esku Hartzailatza Nagusiari dagozkion kontrol finantzarioari lotutakoak, Kontuen Auzitegiaren legedian aurreikusitakoak, baita Europako Erkidegoen Batzordeak eta Kontuen Auzitegiak eta Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Auditoretza Bulego Nazionalak eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzak egin ditzaketen egiaztapenak ere. Horretarako, dirulaguntzari buruz eskatzen den informazio guztia atzitzeko bidea emango diete organo horiei, Europako

Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikulua xedatzen duen moduan.

2.- Nolanahi ere, oinarri hauetan araututako dirulaguntzen kasuan, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planerako ezartzen diren jarraipen, kontrol eta ebaluazioa egin beharko dira, baita ere, informazioaren eta publikotasunaren arloan, kontrol, egiaztapen, jarraipen eta ebaluazioaren arloan, barne-araudiak eta Europar Batasunak Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarako ezartzen dituzten betebeharrak bete, nahitaez aplikatzekoak direnean.

3.- Hain zuzen, dirulaguntza ematen duten Administrazioek, funtsen erabileraren auditoretza eta kontrola egiteko, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitako eraberritze lanak eta inbertsio proiektuak gauzatzeko neurriei dagokienez, datu kategoria harmonizatuak bilduko dituzte formatu elektronikoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan zehaztutakoari jarraikiz.

4.- Pertsona onuradunek frogagiriak eta finantzaketari dagokion gainerako dokumentazioa, formatu elektronikoa gorde beharko dituzte, bost urtez, saldoa ordaintzen denetik aurrera edo, ordainketarik ez badago, eragiketa egiten denetik aurrera; bestela, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, hiru urtez gordeko dute dokumentazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 132. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Auditoretza, errekurso eta auziei dagozkien erregistro eta dokumentuak, konpromiso juridikoekin zerikusia duten erreklamazioen izapideak, baita Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren ikerketei dagozkienak ere, auditoretza, errekurso, auzi, erreklamazioen izapide edo ikerketa horiek burutu arte gordeko dira. Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren ikerketei dagozkien erregistro eta dokumentuen kasuan, erregistro eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi eta gero aplikatuko da.

Erregistro eta dokumentuak jatorrizko formatuan edo jatorrizko agirien kopia konpultsatu gisa gordeko dira, edo bestela, gehienetan onartzen diren datu euskarrietan, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoa eta formatu elektronikoa soilik dauden dokumentuak barne. Dokumentuek bertsio elektronikoa dutenean, originalak ez dira beharrezkoak izango, baldin eta dokumentu horiek betetzen badituzte jatorrizkoen baliokidetzat eta auditoretzaren ondorioetarako fidagarritzat hartzeko lege baldintzak, aplikatzen zaizkienak.

17. ARTIKULUA. BETEBEHARRAK EZ BETETZEAGATIK AMAITZEA EDO DERRIGORREZ AMAITZEA. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ZEHAPEN ARAUBIDEA

1.- Jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira eta dirulaguntza ordaindu denetik dirua itzultzeko beharra erabaki bitarteko berandutze interesak eskatu beharko dira, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko Erregelamenduan aipatzen diren egoeretako batean, baita Oinarri hauetan jasotako berariazko kasuetan ere.

2.- Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko dira, hortaz, dirua ezarritako epeetan itzuli ezean, premiamendu bidez eskatu ahal izango da.

3.- Oinarri hauetan ezarritako betebeharren ez-betetze larria gertatzen bada edo behin eta berriz errepikatzen bada, onuradunak jasotako zenbateko guztiak itzuli behar izango ditu. Adibide moduan, baina kasu guzti-guztiak aipatzeko asmorik gabe, ez-betetze larritzat eta/edo errepikakortzat joko da dokumentazio ofiziala faltsutzea, kopiatzea, plagioa, proiektua aurkeztean hirugarrenen eskubideak urratzea eta abar.

4.- Era berean, dirua itzularazteko arrazoia izango da DNSH printzipioa eta klima etiketatzeari lotutako betebeharrak ez betetzea.

5.- Dirua itzultzeko prozedura Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 41. artikuluan eta hurrengoetan eta lege hura garatzeko erregelamenduaren 91. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz bideratuko da.

Dirulaguntza itzuli behar dela erabakitzeko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzordea izango da, erabakia Ekonomiako eta Bertako Enplegurako zinegotziaren esku uzteko aukera galarazi gabe.

6.- Era berean, dirua itzuli beharra eragiten duen arrazoietakoa bat dagoenean –lehenago aipatutakoen artean–, galdu egingo da geratzen diren kopuruak jasotzeko eskubidea. Eskatzaileak ezingo du berriro aurkeztu programan parte hartzeko eskaerarik.

7.- Arau hausteen eta zehapenen gaiari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 56. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa, baita lege hura garatzeko xedapenak ere, beteko dira. Zehapenak ezartzeko erabakiek amaiera emango diete administrazio bideari.

18. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1.- Onuradunek Dirulaguntzen Lege Orokorren 14. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte; izan ere, ondorio hauetarako, aipatu legea bete behar dela esanbidez adierazten da, besteak beste, honako betebeharrak hauek aipatuz, gehiago badira ere:

- a) Laguntza diruz lagundutako kontzeptuetara bideratzea.
- b) Diruz laguntzeko moduko gastuak justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduan eta denboran.
- c) Jasotako dirulaguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, horiek guztiak egiaztatu eta/edo kontrolatu baitaitezke; nolana ere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean gordeko dira.
- d) Laguntzari lotutako jardueren gastu eta diru sarrera guztiak kontabilizatzea.
- e) Egunean izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

- f) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- g) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar –subjektibo zein objektibo– aldatu baldin bada, Donostia Sustapenari horren berri ematea, aldaketa gertatu eta hurrengo 15 egun naturaleko epean, gehienez ere.
- h) Emandako laguntzei dagokienez, Donostia Sustapenak bere eginkizunak betez eskatzen duen informazio guztia ematea.
- i) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
- j) Donostia Sustapenari laguntzea, hala badagokio, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta bere esku jartzea eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.
- k) Oinarri hauetako 6., 7. eta 8. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- l) Donostia Sustapenari baimena ematea bere enpresen direktorio digitaletan honako hauek argitaratzeko: harremanetarako pertsonaren datuak, jarduera, izen komertziala, logoa, marka eta beste edozein bereizgarri, onuradunak trafiko ekonomikoan erabiltzen duena. Ondorio horretarako, onuradunak elementu horiek adierazitako helburuekin bakarrik erabiltzeko eta eskusibotasunik gabe ustiatzeko lizentzia bat emango dio Donostia Sustapenari eta Sustapenak era baketsuan erabiltzea bermatuko du. Hortaz, Oinarri hauetan esanbidez ezarritakoa ez den beste edozein erabilera espresuki baimendu beharko da.
- m) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia, seinaleztapena eta abar), sustapen eta hedapen materialetan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan eta abarretan.

Onuradunek Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango dute testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko (hilean gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira (<https://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>).

- n) Material, euskarri eta espazio guztietan Donostiako Udala, Donostia Sustapena eta NextGenerationEUko erakunde finantzatzaileak aipatzea eta beren logoak jartzea, HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan xedatutako moduan. Eskaera onartzen denean, Donostia Sustapenak jakinaraziko dizkio onuradunari derrigorrez egin beharreko aipamenak, tamaina, kokapena eta abarrak zehaztuta. Honako aipamen hauek derrigorrez egin beharko dira:

“Donostia, esperientzia enogastronomiko jasagarri eta berritzailea” proiektuaren baitako jarduerak, “Helmugako Turismo Jasagarritasuneko Plana (HTJP) – Enogastronomiaren Plan Nazionala”, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitan gauzatua eta Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsen bidez finantzatua.

- o) Indarrean dauden eta aplikagarriak diren araudi guztiak errespetatzea, batez ere, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena, non, besteak beste, debekatzen baitira pertsonen sexuan oinarritutako diskriminazio guztiak, zuzenean nahiz zeharka egiten direnak.
- p) Diruz lagundutako jardueran sortutako komunikazio osoa hizkera inklusiboan egitea eta erabiltzen diren irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotipatu gabekoa bermatzea.
- q) Interes gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik ez dagoela bermatzea, eta baldintzarik eta erreparorik gabe onartzea Iruzuraren aurkako Neurrien Plana, dirulaguntza ematen duen administrazioak onartutakoa; horren xedapen guzti-guztiak bete beharko dira, autonomia-erkidegoko, estatu mailako eta Europako araudia –iruzurrak, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari buruzkoa– erabat errespetatuz eta Europar Batasuneko erakundeek beren finantza interesak babesteari buruz har ditzaketen erabakien arabera.
- r) Erakundeak honako hau badakiela bermatzea: laguntza horren finantzaketa Europar Batasunaren Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanisмотik datorrenez, bere gain hartzen dituela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendutik (Mekanismoa ezartzen duenetik), baita finantzaketa horri aplikatzen zaizkion Europar Batasuneko eta Espainiako gainerako arauetatik ere, datozen betebeharrak guztiak. Horrela dela egiaztatuko da erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.
- s) Esanbidezko baimena ematea Batzordeari, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzari Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluko 1. apartatuak aitortzen dizkien eskubideak erabiltzeko, eta betebeharra berrikuntzak eta inbertsio proiektuak –suspertze eta erresilientzia planean daudenak– aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen azken

hartzaile guztiei edota aplikatzean parte hartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiei ezartzea; esanbidezko baimena ematea Batzordeari, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzari Finantza Erregelamenduaren 129. artikulua 1. apartatuak aitortzen dizkien eskubideak erabiltzeko, eta antzeko betebeharrak funtsen azken hartzaile diren guztiei ezartzea.

- t) Bere identifikazio datuak datu base batean sartzea, Parlamentuaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan xedatutakoarekin bat.
- u) Zerikusia duten Administrazio Publikoen artean datuak lagatzea onartzea, aplikatu behar den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta honako hauekin bat: Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa; irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikulua osoa (funtsen azken hartzailea identifikatzea arautzen du; hartzaileari buruzko informazioak eskura egon beharko du, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluaekin bat); hori guztia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikulua garatzeko.

2.- Horrez gain, erakunde onuradunek bete beharko dituzte Europako zein estatuko betebeharrak, Europar Batasunaren Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidezko finantzaketari dagokionez. Horretarako, honako hau bete beharko dute:

- a) Diruz lagundutako jarduerak diseinatzean eta gauzatzean, egiten diren jarduerak errespetatu egin beharko dute kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (*Do No Significant Harm*, DNSH). Izan ere, hala xedatzen du Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak, eta hala eskatzen du, orobat, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua eta hura garatzeko araudian xedatutakoak —bereziki 2020/852 (EB) Erregelamendua, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa, eta Europako Batzordearen Gida Teknikoa (2021/C 58/01), printzipio hori aplikatzeari buruzkoa—, eta bete beharrekoa izango da, orobat, Kontseiluaren Egikaritze Erabakian (Espainiako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa) eta haren Dokumentu Erantsian eskatutakoa ere. Proiektua diseinatzeko, gauatzeko eta justifikatzeko fase guztietan laguntza jaso dezaketen proiektu guztiek, banaka eta jarduketa bakoitzerako, zorrotz errespetatu beharko dituzte bai ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (DNSH ingelesez, *Do No Significant Harm*), bai etiketa klimatikoaren baldintzak.

Bermatu ahal izateko erabat betetzen dela ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoa (2021/02/18ko Kontseiluaren 58. Beteazpen Erabakia, 1. or.), baztertu egiten dira jarraian zehazten diren jarduerak:

- i) Erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, horien ondorengo erabilera barne.
- ii) EBko Isurketa Eskubideen Merkataritza Araubidearen esparruko jarduerak, baldin eta aurreikusten bada eragingo dituzten berotegi efektuko gasen isuriak ez direla egongo dagozkien erreferentzia parametroen azpitik.

iii) Hondakinen zabortegiekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin lotutako jarduerak.

iv) Hondakinen epe luzeko ezabatzea dela eta, ingurumenari kalteak eragin diezazkiokeen jarduerak.

Indarrean dagoen araudia betetzeak ez du salbuesten kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (DNSH, *Do No Significant Harm*) ebaluatzeko beharretik, eta ez du berez justifikatzen jarduera printzipio horri jarraikiz egiten dela ere.

Printzipio hori errespetatzeko betebeharrak orokorraz gainera, kontratistek eta, kasuaren arabera, azpiktratistek neurriak izan ditzakeen DNSH baldintza espezifikak bete beharko dituzte. Era berean, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiaren 8. apartatuak Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planetarako ezartzen duen moduan (2. azpineuria), kontuan hartu beharko dira ingurumenari kalterik ez egiteko printzipioaren (DNSH, *Do Not Significant Harm*) baldintza espezifikak.

Klima aldaketa arintzea:

«Eraikinak birgaitzeko, eraikinen energia-efizientziari buruzko 2018/844 (EB) Zuzentarauan jasotako jarraibideak hartuko dira kontuan, energia-kontsumo ia nuluko eraikinak izan daitezten, eta, horri esker, nabarmen murriztu ahalko da energia ez-berriztagarri primarioaren kontsumoa».

Klima aldaketara egokitzea:

«Birgaitze-neurriei esker, eraikinak klima-aldaketara egokitu ahal izango dira, eta, horretarako, dena delako eraikinak ahalbidetzen dituen aukeren esparruan ahal diren egokitzapen-soluzioak hartuko dira —eta babestu ere egingo dira, eraikin babestuen direnean—, hala nola landare-estalkiak, olanak, itzalguneak eta abar erabiltzea...».

Ur baliabideen eta itsasoko baliabideen erabilera jasangarria eta babesa:

«Ez da aurreikusten neurria kaltegarria izango denik ur eta itsas baliabideak modu jasangarriak erabiltzeko eta babesteko. Neurriaren helburua da helmuga turistikoa eta horiek osatzen dituzten enpresak ekonomia zirkularreko estrategietara egokitzea, baliabide hidrikoen kontsumoa murriztea eta baliabide naturalak babestea —eta, bereziki, itsas baliabideak—.

Ur aparatuak instalatzen direnean, Batasuneko produktu etiketa bat izango dute.

Obraren inpaktua saihesteko, ingurumena degradatzeko arriskuak identifikatu eta jorratuko dira, uraren kalitatea zaintzearekin eta estres hidrikoa prebenitzearekin loturik, betiere uraren erabilera eta babesa kudeatzeko plan bati jarraikiz.

Neurriaren inbertsio bakoitzaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioa egitea aurreikusten da, ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren zuzentarauak ezarritakoari jarraikiz, eta ur baliabideen erabilera jasangarria egiteko beharrezko arintze neurri guztiak identifikatu eta islatu dira proiektu bakoitza diseinatzean».

Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne:

«Berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da inbertsioetan aurreikusitako jarduketetan sortzen diren eraikuntza eta eraispén hondakin ez-arriskutsuen % 70 gutxienez (2000/532/EC Erabakiak ezarritako Europako Hondakinen Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala kanpo utzita); horren barruan sartzen da, orobat, beste material batzuk ordeztzeko hondakinak baliatzea betelaketarako, hondakinen hierarkiari ez ezik EBko eraikuntza eta eraispén hondakinak kudeatzeko Protokoloak diotenari ere jarraikiz.

(II) Eraikuntzarekin eta eraispénarekin lotutako prozesuetan, operadoreek mugatu egingo dute hondakinen sorrera, EBko eraikuntza eta eraispén hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik, eskuragarri dauden teknika onenak kontuan hartuta, eta gaikako eraispén erabiliz, substantzia arriskutsuak modu seguruan ezabatu eta manipulatu ahal izateko, eta kalitate handiko berrerabiltzea eta birziklatzea errazteko; horretarako, materialak gaika ezabatuko dira eta, orobat, eraikuntza eta eraispén hondakineterako eskuragarri dauden sailkapen sistemak baliatuko dira.

(III) Eraikinen diseinuek eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna bultzatuko dute, eta ISO 20887 arauari jarraituko zaio eraikinen desmuntatze edo moldagarritasun gaitasuna ebaluatzeke eta nola diseinatu dauden ikusteko, guztia ere baliabideak erabiltzerakoan efizienteagoak, moldagarriagoak, malguagoak eta desmuntagarriagoak izateko, horrek berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetuko baitu».

Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola:

«Ez da espero neurri horren ondorioz atmosferara, uretara edo lurzorura egiten diren emisio kutsatzaileak nabarmen handitzea, neurrien helburua baita, besteak beste, jarduera turistikoak lurraldean duen presioa murriztea, jasangarritasunean oinarrituta».

Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratzeko:

«Neurriak ez du izango eragin kaltegarririk biodibertsitatean, ezta ekosistemetan ere, haren xedea natura, itsaso eta lur inguruneak babestea baita, Espainiako turismo politikaren bereizgarri gisa».

Birgaitze jarduerak egiten badira biodibertsitatearekiko sentikorrak diren eremuetan (eremu babestuen Natura 2000 Sarea, UNESCOk Munduko Ondare gisa izendaturiko tokiak eta biodibertsitatearako funtsezkoak diren eremuak, bai eta babestutako beste eremu batzuk ere) edo haien inguruan, betetzekoak izango dira Habitategi buruzko Zuzentarauaren 6 (3) eta 12. artikulua eta Hegaztien Zuzentarauaren 5. artikulua. Gainera, nahitaezkoa denean, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa egingo da, Ingurumen Inpaktuaren Zuzentarauak diotenari jarraikiz.

- b) Espainiako erakundeek eta Europar Batasunaren kontrol jardueren mende jarriko dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikulua arabera.

- c) Beren gain hartzen dute dirulaguntza honen esparruan egindako jarduketan auditoretza pista egokia mantentzea eta dokumentazio euskarriari eusteko betebeharra legez eska daitekeen epearen barruan.
- d) Informazioa Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak ezartzen duen moduan emango da, estatuko eta Europar Batasuneko araudiarekin bat etorriz.
- e) Dokumentuak formatu elektronikoan gordetzea bost urteko epean, saldoa ordaintzen denetik zenbatzen hasita —edo, ordainketarik ezean, eragiketaren unetik zenbatzen hasita—, edo hiru urteko epean, finantzaketa 60.000 eurokoa edo hortik beherakoa bada, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza arauetara buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Finantza Erregelamenduaren (EB, Euratom) 132. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- f) Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan ezarrita dagoenari jarraikiz, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik datozen funtsen azken onuradunek eta, kasuaren arabera, azpikontrastek aplikatzekoa zaien araudia bete beharko dute —Europakoa zein Espainiakoa—, eta bereziki bete beharko dituzte, orobat, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren Erregelamendutik eratorritako eginbeharrak honako esparru hauetan: etiketa digitala eta berdea, ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa, interes gatazkak saihestea, iruzurra, ustelkeria, finantzaketa bikoitzik ez egotea, estatu laguntzen arloko araudia betetzea, komunikazioa, datuen transferentzia, eta abar. Eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira erantzukizunpeko adierazpenak «Konpromiso deklarazioa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko jarduerak gauzatzeari dagokionez», bai eta «Datuak lagatzeko eta tratatzeko deklarazioaren eredia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko jarduerak gauzatzeari dagokionez» eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.f) artikuluari dagokiona ere.
- g) Diruz lagundutako ondasunaren titulartasuna izatea, eta xede jakin baterako erabiltzea.
- h) Era berean, gorde egingo dituzte auditoretzei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo Iruzuraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erreklamazioen izapideen gaineko erregistroak eta dokumentuak, harik eta errekurtsu, auzi, erreklamazio edo ikerketa horiek amaitu arte. Iruzuraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da erregistroak eta dokumentuak gordetzeko eginbeharra. Erregistroak eta dokumentuak gordetzeko, ontzat joko dira bai jatorrizkoak berak, bai jatorrizkoen kopia konpultsatuak, bai eskuarki onartutako datu euskarriak, hala nola jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektroniko hutsean ageri diren dokumentuak. Bertsio elektronikoak direnean, ez da beharko jatorrizkorik, betiere agiri horiek aplikatzekoak diren legezko baldintzak betetzen badituzte, auditoretzarako jatorrizkoen baliokidetzat eta fidagarritzat har daitezten.
- i) Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik ez dagoela bermatzea, eta dirulaguntza eman duen administrazioak onartu duen Iruzuraren aurkako Neurrien Plana baldintzarik gabe eta inolako erreserbarik gabe onartzea. Halaber, erabat errespetatu behar dute iruzurra,

ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeari, antzemateari eta zuzentzeari buruzko araudia —izan autonomia erkidegokoa, estatukoa edo Europakoa—. Era berean, erabat errespetatu behar dituzte Europar Batasunaren finantza interesak babesteari buruz erakundeek egiten dituzten adierazpenak ere.

- j) Onuradunak helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso dituela jakinarazi beharko dio dirulaguntzak ematen dituen administrazioari, kostu beraren gainean finantzaketa bikoitzik ez izateko beste edozein administrazio edo erakunde publikotatik, izan erakunde horiek nazionalak, izan nazioartekoak.
- k) Bermatzea erakundeak badakiela laguntza horren finantzaketa Europar Batasuneko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanisмотik datorrela, eta, beraz, bere gain hartu beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendutik eratorritako betebeharrak guztiak, bai eta finantzaketa horri aplikatu dakizkiokeen Erkidegoko edo nazioko gainerako arauetatik eratorritakoak ere. Inguruabar hori erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko da.
- l) Berariazko baimena ematea Batzordeari, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoari (OLAF), Kontu Auzitegiari eta, kasuak hala eskatzen badu, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan aitortzen zaizkien eskubideak egikaritzeko, eta haien mende jartzea berreskuratze- eta erresilientzia-planeari sartutako erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen azken jasotzaile guztiak edo horiek aplikatzen esku hartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiak. Era berean, berariazko baimena ematea Batzordeari, OLAFi, Kontu Auzitegiari eta, kasuak hala eskatzen duenean, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluko 1. apartatuan aitortzen zaizkien eskubideak baliatzeko eta funtsen azken hartzaile guztiei antzeko betebeharrak ezartzeko.
- m) Identifikazio datuak datu base batean sartzea, Parlamentuaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan adierazitakoaren arabera.
- n) Diruz lagundutako jardueren fidagarritasunaren eta jarraipenaren erantzule izatea, jarduera bakoitzaren lorpen maila une oro ezagutu ahal izateko. Hirugarrenek garatu beharreko jarduketan kasuan, aurreikusitako jarduketak lortzen lagunduko dutela ziurtatuko duten mekanismoak ezartzea, eta hirugarren horiek Berreskuratze Planeko adierazle, mugarri eta helburu egokien balioa zehazteko beharrezkoa den informazioa ematea, kasuak hala eskatzen badu.
- o) Inplikaturako Administrazio Publikoen arteko datu lagapena onartzea, aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Funtsen azken hartzailearen identifikazioa arautzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluekin bat etorriz. Ildo horretan, funtsen azken hartzailearen informazioak eskuragarri egon beharko du irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan arabera, eta hori guztia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan garapen gisa.

19. ARTIKULUA. KOFINANTZAKETA

1.- Dirulaguntza hauek %100-ean kofinantzatuko dira **"DONOSTIA, ENOGASTRONOMIA ESPERIENTZIA JASANGARRI ETA BERRITZAILEA"** izeneko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planeko (HTJP) jardueren baitan, "Donostia, esperientzia enogastronomiko jasangarri eta berritzailea" proiektuan, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatzen den eta Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsen bidez finantzatzen den "Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana (HTJP) – Turismo Enogastronomikoko 2022ko Plan Nazionalari" lotutakoan.

20. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEAK

1.- Datuen babeseko indarreko araudian xedatutakoari jarraikiz, Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak eskatzen dituztenei jakinarazten zaie eskabide orriaren bidez ematen dituzten datu pertsonalak, baita dirulaguntzak izapidetu eta/edo –dirulaguntza jaso eta gero– kudeatu bitartean aurkezten dituzten beste agiri guztiak ere, Donostiako Udalak tratamendurako gorde eta erabiliko dituela, Tratamenduaren Arduradun gisa, eta Donostia Sustapenak kudeatuko dituela, tratamenduaren eragile gisa. Tratamenduaren helburua eskabidea kudeatzea eta laguntza horiek izapidetzea izango da.

2.- Tratamenduaren zilegitasun oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO). Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko egindako misio bat betetzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.

3.- Oinarri hauetan edo eskabide inprimaketan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa derrigorrez eman beharko da, eta datu okerrak emateak edo daturik ez emateak eskabidea kudeatzea galaraziko du.

4.- Datuak bildu ziren helburua betetzeko behar den denbora guztian gordeko dira, baita helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko beharrezkoa izan litekeen denbora guztian ere.

5.- Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak Donostia Sustapenarekin lan egiten edo kofinantzatzen duten Espainiako edo atzerriko erakundeei laga daitezke, beharrezkoa denean, eta soilik dirulaguntza emateko gestioak egiteko.

6.- Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela pertsona onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea; izan ere, datu horiek, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere, Donostia Sustapenaren webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

7.- Eragindako pertsonen datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea, baita indarrean dagoen araudian aurreikusitako gainerako eskubideak ere, baliatu ahal izango dituzte, hala dagokionean, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuaren bidez: Easo kalea 41, 20006 Donostia.

Interesdunak bere eskubideak baliatzeko garaian behar bezalako arreta jaso ez badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, lehendabizi, datuak babesteko Donostiako ordezkariari aurkeztu ahalko dio erreklamazioa: dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, adierazten da eskatzaileak, eskaera aurkezten duenean, berariaz onartzen dituela aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondoriozko komunikazioak edo datu lagapenak.

21. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNETIK SALBUESTEA

1.- Interesdunak eskaera aurkezten badu, Oinarriak osorik onartzen dituela esan nahi du.

2.- Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz edo jardueraren ondorioz sortutako kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra; ez Donostiako Udalak, ezta Donostia Sustapenak ere, ez dute inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

Donostian, sinaduran agertzen den egunean.